



254/2020 EBAZPENA, UZTAILAREN 6KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZAKO LANGILEEK HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO OHIKO BIGARREN DEIALDIKO PROBETAN PARTE HARTZEKO ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA JENDAURREAN JARTZEN DUENA.

Ebazpen hau honako egitate hauean oinarritzen da:

AURREKARIAK

Osakidetzako zuzendari nagusiak, 2020ko ekainaren 4ko 348/2020 Ebazpenaz (EHAA, 116 zk.), onartu egin zuen Osakidetzako langileek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko 2020ko ohiko bigarren deialdia.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

348/2020 Ebazpenaren 6. oinarriari jarraiki, izena emateko epea amaitutakoan, ebazpen baten bidez Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartu behar du, eta baztertuen kasuan, baztertzearen arrazoia adierazi behar da.

Azaldutako guztiagatik eta emandako ahalmenak erabiliz, hau

EBATZI DUT:

Osakidetzako langileek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko bigarren deialdiko probetan parte hartzeko onartuen eta baztertuen zerrenda jendaurrean jartzea, Ebazpen honen Eranskinen arabera.

RESOLUCIÓN 254/2020, DE 6 DE JULIO, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE HACE PÚBLICA LA RELACIÓN DEFINITIVA DE PERSONAS ADMITIDAS Y EXCLUIDAS DE LA SEGUNDA CONVOCATORIA ORDINARIA DE PRUEBAS DE ACREDITACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS PARA EL PERSONAL EMPLEADO DE OSAKIDETZA.

La presente Resolución se basa en los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHOS.

La Resolución 348/2020 de 4 de junio, (BOPV nº 116), del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, aprobó la segunda convocatoria ordinaria de pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos para el personal empleado de Osakidetza.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Conforme a lo previsto en la base 6 de la Resolución 348/2020, finalizado el plazo de inscripción, la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza aprobará mediante resolución la relación definitiva de personas admitidas y excluidas, con expresión del motivo de exclusión.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades atribuidas.

RESUELVO:

Hacer pública la relación de personas admitidas y excluidas de la segunda convocatoria ordinaria de pruebas de acreditación de perfiles lingüísticos para el personal empleado de Osakidetza, según lo contenido en los Anexos de la presente Resolución.



Lehenengo eranskinean (onartuen zerrenda) agertzen da izangai bakoitza zein hizkuntza-eskakizunen proba egiteko dagoen onartuta. Halaber, bertan adierazten da zein izangaik parte hartu ahalko duen ahozko proban zuzenean, hau da, oraingo proba idatzia egin gabe.

Bigarren eranskinean (baztertuen zerrenda) agertzen da izangai bakoitza zein hizkuntza-eskakizunen proba egiteko dagoen baztertuta eta baztertze horren arrazoia.

Izangaiei iragarkien bidez jakinaraziko zaie proba bakoitza non eta noiz egingo den, iragarkiak Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako iragarki-tauletan eta intranetean jarri.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez daskioke Osakidetzako zuzendari nagusiar, hilabeteko epean, ebazpen hau Osakidetzako intranetean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ezartzen da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121 eta 122 artikuluetan.

En el Anexo I (relación de admitidos) se especifica el perfil lingüístico para el que está admitido cada aspirante, así como las personas que podrán participar en la prueba oral sin tener que realizar la prueba escrita.

En el Anexo II (relación de excluidos) se expresa el perfil lingüístico para el que está excluido cada aspirante, así como el motivo de exclusión.

El lugar y hora de realización de las respectivas pruebas se harán públicos en conocimiento de los aspirantes a través de anuncios, en la intranet y en los tablones de anuncios de las distintas Organizaciones de Servicios de Osakidetza.

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de la publicación de la resolución en la intranet de Osakidetza, de conformidad con los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Vitoria/Gasteizen, 2020ko uztailaren 6an

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de julio de 2020


 **Osakidetza**
María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Iz.: Pijar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS